

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Donostiako garraio publikoak marka guztiak hautsi ditu aurtengo udan, eta 2.7 milioi bidaia erregistratu dira uztail historiko batean

*Hartutako mugikortasun-neurriek uda lasaiagoa izaten lagundu dute, eta horrek arintasun handiagoa ekarri du Dbus lineen ibilbideetan.*

Donostiako Udalak azterketa zabala egin du uda honetan hiriko mugikortasunean eragina izan duten parametroei buruz, eta uztailetik aurrera hartutako neurrien balantzea egin du.

Mugikortasuneko eta Garraio Jasangarriko zinegotzi Olatz Yarzak adierazi duenez, "uda honetarako helburu nagusietako bat hiriko garraio publikoaren funtzionamendu egokia babestea eta erraztea zen, eta datuak espero genuena baino hobeak izan dira, Dbus gai izan baita bidaia-kopuruetan marka historikoak erregistratzeko eta bere zerbitzuaren kalitatea hobetzeko".

Yarzak gogorarazi duenez, gainera, "mugikortasunaren paradigma-aldaketa baten aurrean gaude; izan ere, egungo gizartea iraganean baino askoz gehiago mugitzen da, eta historikoki kultura, merkataritza eta aisialdiaren aldetik erakargarriak diren hiriek, esaterako gureak, une jakin batzuetan bisitari gehiago izateko joera dute".

Gainera, gogorarazi duenez, "gure hiriaren tamaina dela eta, egokia da garraio publikoan eta beste garraiobide aktibo batzuetan (bizikletan, esaterako) ibiltzeko, eta, horregatik, uda honetan hartu diren neurrien helburua mugikortasuna indartzea izan da, bisitariak uler dezaten ibilgailu pribatuaren ordean, gu ezagutzeko modu azkar, seguru eta jasangarriena garraio publikoa dela".

#### Marka guztiak hautsi dira garraio publikoan

Zalantzarik gabe, uda honetan hartutako neurrien balorazioa indartzen duen parametroetako bat garraio publikoa da, **aurten marka historiko guztiak hautsi ditu**. Izan ere, Dbus-ek 2.776.446 bidaia erregistratu ditu aurtengo uztailean, hau da, 2023an baino %12,5 gehiago, **konpainiaren historia osoan hilabete bateko erabilzaile-kopuruaren errekorra gaingituz**.

Eskaera handiagoa izateaz gain, **zerbitzua hobetzea** lortu da; izan ere, 2024ko uztailean puntualtasuna ia %96koa izan da, eta 2023ko aldi berean, berriz, %94koa izan zen. Bestalde, 2024ko uztailean 497 ibilbide bete behar izan dira, 2023an baino %1,58 gutxiago.

Abuztuari dagokionez, hilaren 22ra arte 2.092.522 bidaia egin dira, hau da, **2023ko**

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



**abuztuaren lehen 22 egunetan baino %8,40 gehiago**, orduan 1.930.376 bidaia erregistratu baitziren. Era berean, abuztuko puntualtasuna %91,50ekoa da, 2023koaren oso antzekoa. Aurtengo abuztuan 476 ibilbide bete behar izan dira, 2023an baino %7 gutxiago.

Yarzak adierazi duenez, "datu horiek berriro ere agerian uzten dute erabiltzaileek hiriko garraio publikoaren sisteman duten konfiantza, bai eta konpainian lan egiten duten pertsona guztiek egiten duten lan handia ere, beren inplikazioari esker zerbitzua apartekoa izatea lortzen baitute".

Gainera, **Dbizi** bizikleta publikoaren sistemak zifra ikusgarriak lortu ditu berriz ere: **365.699 bidaia** erregistratu dira ekaina, uztaila eta abuztua bitartean. 2023ko aldi berean 244.200 bidaia egin ziren, eta 226.141 2022an.

Aurtengo abuztuan, adibidez, 114.501 bidaia egin dira, eta 2023ko abuztuan berriz 88.327, sistemak duen osasun onaren seinale.

### Disuasio-aparkalekuak

Udan trafikoaren arintasuna hobetzeko beste puntu garrantzitsu bat disuasio-aparkalekuak edo *Park and Ride* izenekoak martxan jartzea izan da, hain zuzen ere Illunben, Igaran eta Unibertsitateetan. Guztira 700 plaza eskaini dituzte ibilgailu pribatuetarako, garraio publikoarekin behar bezala konektatuta.

Mugikortasuneko zinegotziak jakinarazi duenez, "hiru aparkaleku horien egokitzapenari esker, uztaillaren 15etik abuztuaren 25era bitartean, **22.040 ibilgailu ez dira hirigunean sartu**, eta hori, zalantzarik gabe, oso albiste ona da".

Bildutako datuen arabera, erabilera handieneko aparkalekua Igarakoa izan da, 10.019 ibilgailurekin, ondoren Illunbe (8.610) eta unibertsitateak (3.411), eta aparkatutako ibilgailuen kopuruari dagokionez, 9.378 uztailean aparkatu ziren eremu horietan, eta 12.662 abuztuan. Horrez gain, eguneko batez besteko erabilera 498 ibilgailukoa izan da hiru aparkalekuetan (552 uztailean eta 461 abuztuan).

Guztizko okupaziorik handiena uztaillaren 19an (ostirala) erregistratu zen, 1.240 ibilgailurekin. Egun horretan bertan, okupazio handieneko gailurra izan zen Illunben; Igaran eta Unibertsitateetan, berriz, abuztuaren 16an (ostirala).

Gainera, okupazio txikiena izan duten asteko egunak normalean igandeak izan dira, eta okupazio handiena izan dutenak, berriz, aldatzen joan dira astearen arabera. Eta datu berberen arabera, Igara eta Unibertsitateetan matrikulen %15 atzerritarrak izan dira eta %85 Estatukoak.

Illunbeko zuzeneko autobus-zerbitzuari dagokionez, uda honetan 2023an baino

# Prensa oharra

## Nota de prensa



astebete geroago hasi da, eta lehen aldiz ordainpekoa izan da. Agian horrek eragina izan du zerbitzu horren erabileran, behera egin baitu aurreko urteekin alderatuta. Izan ere, antzeko aldiak erreferentzia gisa hartuta, uda honetan iaz baino % 40 bidaia gutxiago erregistratu dira.

Zinegotziak azaldu duenez, "jakin bagenekien disuasio-aparkalekuen eskaintza handiagoak eta aurten zerbitzua ordainpeko izateak eragina izan lezakeela eskarian, baina, gure ustez, batez ere bisitarientzako den linea baten prezioa ez dute zertan donostiarrek ordaindu behar. Gainera, Dbusen QR bidezko tarifa berriei esker, txartel horien prezioa merkeagoa izango da bisitarientzat".

Nolanahi ere, Olatz Yarzak azpimarratu duenez, "oso positibotzat jotzen dugu aparkatzeko aukera horiek erabiltzea, udako trafikoaren fluxua hobetzen eta hirian ingurumen- eta soinu-kutsadura apalagoa izaten lagundu baitute".

### Informazio kanpainak

Uda honetan garrantzi berezia eman zaio denbora errealean informazioa emateari, bai disuasio-aparkalekuei buruz, bai hiriko trafikoaren egoerari buruz.

Aparkalekuei dagokienez, etengabe iragarri dira hiri osoko termometro digitaletan, Donostiako sarbideetako errepideetako argi-karteletan eta Donostia Turismo eta Udalaren webguneetan.

Gainera, Igarako aparkalekuak informazio-kartel espezifiko bat izan du: hiriaren plano bat eta berariazko seinaleak jarri dira aparkalekutik bertatik gertuen dauden autobus-geltokietara, ibilbideak errazteko.

Era berean, **aparkalekuei buruzko informazioa Interneten hobeto kokatzeko ahalegina egin da**, eta era berean, ahalegina egin da **jatorrian bertan kanpainak** egiteko, Google bilaketa-plataformako iragarkien bidez.

Azken kasu horretan, guztira 30.390 interakzio zenbatu dira uztailaren 1etik abuztuaren 22ra bitartean argitaratutako iragarkiekin, %49 gaztelaniaz, %33 frantsesez eta %18 ingelesez.

"Horrek adierazten digu Donostiara joatea erabaki duten pertsona askok beren bisita planifikatzeko interesa agertu dutela eta hirian aparkatzeko eskaintzen zaizkien aukerei buruzko informazioa aurkitu dutela" nabarmendu du zinegotziak.



Berrikuntza gisa, **hiriko trafikoaren egoeraren inguruan denbora errealean informazioa emateko sistema** bat jarri da abian, Google Maps eta Waze plataformen eta Donostia Transport udal-aplikazioaren bidez.

Horietan, une oro ikusi ahal izan dira hiriko bideen pilaketa-egoerak semaforo-kode

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

baten bidez. Kode horrek trafikoaren egoera eta dentsitatea adierazten ditu, ibilbidea hasi aurretik ibilbide alternatiboak planifikatu ahal izateko.



### Trafikoa erregulatzeko protokoloa

Aurtengo udan, bigarren aldiz, trafikoa arautzeko protokolo bat ezarri da, hiria kolapsatu dezaketzen trafiko handiko garaietan aplikatzeko. Iazko udako protokoloarekin alderatuta, zenbait doikuntza egin dira.

Aldaketa horiei esker, perimetroa arautzeko protokoloa 4 aldiz baino ez da aktibatu uztailaz geroztik, –iaz 21 aldiz aktibatu behar izan zen–, eta erregulazio puntual gehiago egin dira Eason eta Antiguon.

"Uda honetan, bisitariak iaz baino beranduago iritsi direla ikusi dugu, baina abuztuan zehar gehiago luzatu da bisitarien etorrera. Joan den urtean, erregulazioa uztailaren 11tik aurrera hasi behar izan zen aplikatzen, eta ez zen beharrezkoa izan abuztuaren 11tik aurrera, baina uda honetan, hain zuzen ere, hilabete honetan izan da jende gehien", adierazi du Yarzak.

Gainera, kontuan hartu behar da, 2023ko uztailarekin alderatuta, 2024ko uztailan, hirira sartu den ibilgailu kopuruak %2,59 egin duela gora, eta iazko abuztua eta aurtengoa alderatzen baditugu, hirira sartu den ibilgailu kopuruak %3,73 egin duela gora.

"Ibilgailu kopuru handiagoa eta garraio publikoaren eskari handiagoa egon direla ikusita, eta jende gehien biltzen den garaietako erregulazio puntualak kontuan hartuta, pentsa dezakegu aldirietako aparkalekuen alternatibak eta linea erregularrekiko loturak hirian trafikoa arintzeko balio izan dutela".

Gainera, zinegotziak eskerrak eman nahi izan dizkio "Mugikortasun Departamentuari, eta bereziki Agenteei, uda honetan lan oso ona egin baitute hori horrela izan dadin, batzuetan egoera zaileri aurre eginez".

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Autokarabanak**

Bisitarien eta donostiarren arteko bizikidetzan desadostasunak sortzen dituzten gaietako bat hau izaten da: autokarabanek nola erabiltzen dituzten hiriko aparkalekuak eta espazio publikoak.

Azken urteotan Donostian ibilgailu horiek aparkatzeko modua arautzeko hartutako neurriez gain, beste neurri batzuk ere hartu dira autokarabanentzako gune espezifikoak sortzeko, esaterako, Illunbeko aparkaleku berria, betiere autokarabanazaleen kolektiboaren ordezkariekin lankidetzan. Horrela, Donostian, uda honetatik hasita, 89 aparkaleku berezi daude autokarabanentzat, Igara eta Igeldo kanpinetan dauden plazez gain.

Aurten, Berioko aparkalekuan, guztira 2.297 autokarabana egon dira uztaila eta abuztua bitartean. Horietatik %81ek egun bakar batean aparkatu dute, guztira 3 egun posible diren arren, eta okupazioaren banaketa oso antzekoa izan da asteko egun guztietan.

Era berean, horrelako ibilgailuak kontrolatzeko gailu bat jarri da martxan gatazka gehien sortzen duten eremuetan. Uztailaren 1etik abuztuaren 21era bitartean 331 salaketa jarri dira oinezkoen pasabidea edo zirkulazioa oztopatuz aparkatzeagatik edo egoiliarrentzat gordetako gunean baimenik gabe aparkatzeagatik. Gainera, 69 salaketa jarri dira 5 metro baino gehiagoko ibilgailuentzat bereziki araututako itsasertzeko eremuetan (Eduardo Chillida pasealekua, Pasealeku Berria eta Sagues).

### **Hiriko aparkalekuak**

Udako hiriko trafiko-fluxuen beste parametro bat txandakako aparkalekuen erabilera da. Kontxa, Okendo, Boulevarde, San Martin, Artzain Ona, Katalunia plaza eta Kursaal aparkalekuetako datuak aztertuta, ikus daiteke uda honetan 2023ko batez besteko okupazioaren antzekoa izan dutela.

Okupazio hori %80tik %88ra bitartekoa izan da, Okendoko aparkalekuaren kasuan izan ezik, aurreko urtearen aldean hazkundera izan duen arren, %77tik behera mantendu baita.

Yarzak azaldu duenez, "aurten aparkalekuei buruz disuasio-neurri gisa planteatutako neurriak berandu eta mailaka ezarri dira, eta, beraz, oraindik ez dugu horien eragina baloratzeko erreferentzia nahikorik, baina gogorarazi nahi dut datorren ikasturtetik aurrera donostiarrentzat abantaila berriak izango ditugula erdiguneko aparkalekuetan, hala nola tarifa bereziak eta garraibide alternatiboetarako plazak".

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### Paradigma aldaketa

"Mugikortasunaren paradigma-aldaketa batean murgilduta gaude, eta, gainera, herritarrak modu eraldatzailean jokatzeko ari dira; izan ere, gure gizartea gero eta kontzientziatuago dago ohitura-aldaketa baten premiaz, goatzeko espazioak itzuliko dizkiguna, ingurumenaren eta zarata kutsadurarik gabe, guztiok gure egunerokoan aprobetxatu ahal izango ditugunak".

Ilido horretan, zinegotziak azpimarratu duenez, "Donostia hiri-eredu jasangarriago, berdeago eta atseginoago baterantz aurrera egiten ari da, non herritarrak hiriaren jardueraren erdigunean jartzen diren, oinezkoentzako espazioak berreskuratuz, eta kalitatezko garraio publikoari zein donostiarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen mugikortasun intermodalari esker".

Donostia, 2024ko abuztuaren 30a